

# Andra Mari eliza



## Udalerria:

Galdakao.

## Tokia:

Elexalde auzoa.

## Sarbidea:

Hirigunea zeharkatu behar da Juan Bautista Uriarte kaletik (Galdakao duen ardatz nagusia). Udaletxea atzean ezkerretara eta bi irtenbide dituen biribilgura helduko gara: lehena A-8 autobidera doa eta bigarrenak aldapan gora egiten du, Elexalde auzora, eta bertan dago Andra Mari eliza.

## Bisitak egiteko ordutegia:

Eliza zabalik dago meza ordutegian, igandeetan 13.00etan alegia. Giltzak jasotzeko: sakristauak ditu, elizaren aurrean.

## Hurbil dauden beste toki interesgarri batzuk:


Elizateko plazaren multzoa. Zaratamo.

San Pedro basiliza, Abrisketa. Arrigorriaga.

Magdalenako eliza. Arrigorriaga.

Aintzinako irin fabrika neoklasikoa. La Peña auzoa. Bilbao.

San Juan parrokia. Bedia.



da, kardu ostodun landare-kapitelak dituzten zutoin faszikulatuen gaineko gurutzeria diagonal xehekoak.

Alderdi errenazentistaren sabaia sistema bereko gurutzeria da, baina izarduna eta zainak kasu honetan kapitelik gabeko zutabe biribil lodien gainean daudela.

Bi alderdiak harlanduzkoak dira. Ertaroko aldeko oinetako itxeko hormaren gainean bi bao dituen kanpandorra dago. Beste alde batetik, epistolako nabeari itsatsita gangetara eta kanpandorrera bertara sartzeko husilo prismatikoa dago itsatsita.

Alderdi horretan, barneko arku hiruobulatua eta arkiboltaduna eta bornatzeko guardapolbodun ataurre aparta izateagatik, pixka bat zorrotzuak eta ukondodun zutabeen gainean, lauak, garaiako pertsonaia zibilak ziren gizakien irudiak dituzten kapiteldunak.

Halaber, kapitelen ilararen gaineko arkiboltak pixka bat abozinatuta daude eta eszena benatorioak, landareak eta interes moralizatzailea duten irudiz apainduta daude. Birjina ergelen eta birjina zuhurren kasua da, hurrenez hurren pitxerak buruz behera eta buruz gora dituztenak, Hilen Berpiztearen episodioa eta "Le Roman du renard" fabularen bertsioa. Tinpano zatitua deritzogun horreta Deikundearen historia antzeman dezakegu.

Atartearen taxuketa erromanikoa da gorputz irtenean eta harrizko kanak dituen teilatutxoaren azpian dago babestuta. Halaber, erromaniko motakoa da atezango eta arkibolten diseinu orokorra.

Gotikoak dira arku hirulobulatua, kapituletan dauden "erretatuak" —Burgosko katedralean dauden XIII. gizaldiko eskultura naturalistak gogora ekartzen dizkigutenak—, elizako atea eta horren atzean, barrualdera, barrezka ari diren figurak.

Alde errenazentista, ordea, irizpide eboluzionatuagoaren arabera egin zen espazioari dagokionean. XVI. gizaldiko bigarren hereneko zabalkuntza bat da, izatez, areto-eliza edo nabe emokatu zutabedun elizaren kontinenteko ereduari jarraiki egin zena, Bizkaian erabat sustraitu zena alegia.

Andra Mari argi ugari jasotzen du Hegoaldetik, leiho zorrotzuen eta okulo baten bidez eta, datak aurreratuta egon arren, trezeriazko gotikorako joera azaltzen dute.

## Altzariak

Elexaldeko Andra Mari elizaren aurrealdean altzari oso onak daude, bereziki errenazimenduko erretaula aipatu behar delarik; urre kolorezko zur polikromatuzkoa da, plateresko arokoa.

Egitura horretan zerbait aipatzekotan dekoraziozko lanaren xehetasuna aipatu beharko litzateke, eta baita lan historiatuaren estiloak erakusten duen ingenuitate ere, nahiko laua delako.

Elizan dagoen Andra Maria, gutxi gora-behera, 1200 urtekoa da eta Bizkaian katalogatuta dauden irudi erromaniko apurretarikoa da.

XVII. gizaldiko bigarren erdiko barroko naturalista aroko lau erretaulak Antonio eta Pedro de Alloitzen lanak dira, Foruako eskultore eta erretaulaegile ezagunak izan zirenak.

Azken urte hauetan eliza osoa hobetu duen zaharberrikuntza lanak egin dira, batez ere erretaula nagusiari eta alboetako beste batzuei dagokionean eta zoladurari; azken horretan hilobien estalki batzuk antzeman daitezke, batzuk zurezkoak, inguruko baserrietako jendea ehorzteko erabili zirenak.



Bizkaiko Foru Aldundia

Kultura Saila  
Ondare Historikoko  
Zerbitzua

Diputación Foral de Bizkaia

Departamento de Cultura  
Servicio de Patrimonio  
Histórico